

B2 MAILA

Mintzamen-proba

- 1. ZATIA. Aztertzailen **galderak**: minutu 1 ikasleko
- 2. ZATIA. **Gaia** garatu: 2+1 min ikasleko (10 min gaia prestatzeko)
- 3. ZATIA. Bat-bateko **elkarrizketa**: 2:30 min ikasleko

Guztira 15 bat minutu (bikoteko)

Prestatu behar duzun gaia:

187. gaia: **Patinete elektrikoak eta antzeko ibilgailuak**



Egoera

Patinete elektrikoak eta antzeko beste zenbait ibilgailu gero eta ohikoagoak dira gure hirietan. Aisialdirako tresna izatetik garraibide izatera pasatu dira. Garraibide merkea eta garbia izan arren, kexak sortu dituzte. Horrela, bada, zenbait hiritan eta herritan arautu egin behar izan dute patinete elektrikoaren erabilera.

Egitekoa

Azaldu zer abantaila eta desabantaila ikusten dizkiezun patinete elektrikoari eta antzekoari. Adierazi zergatik sortu duten haserrea eta kexa pertsona batzuen artean eta zergatik. Zuri zer iruditzen zaizu horien erabilera arautzea?; arrazoitu. Azaldu zuri nola eragiten dizun antzeko gailu elektrikoaren erabilera. Deserosotasunik sortu dizute inoiz?

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzailak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri galdetuko dizu.

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

